

WRECKITECTURE

(HONDAMENDIAREN ARKITEKTURA)

GEORGE STOLZ

1947a urte gogoangarria izan zen munduko historian. Palestinako aginte ingele-sa banatu egin zen, eta horrek Israelgo estatu judua sortzeko bidea ireki zuen, *de facto*. Indiaren eta Pakistanen banaketa aldarrikatu zen. Estatu Batuetan, Central Intelligence Agency sortu zuten. Merkataritzaren arloan, mikrouhin-labea eta Polaroid berehalako kamera kaleratu zituzten. Avtomat Kalashnikova fusi-la asmatu zuten: AK-47 ospetsua (47 zenbakiak armaren lehen ekoizpen-urtea adierazten du). Cambridgeko Unibertsitateak emakumeak onartu zituen ikasgeletan, lehen aldiz. Jackie Robinson, Brooklyn Dodgers taldekoa, beisboleko liga ofizialeko lehen jokalaria beltxa izan zen. Marshall Plana ezarri eta gauzatu zen, eta, aldi berean, Nazioarteko Diru Funtsa abiarazi. Itsaso Hileko eskuizkribuak aurkitu zituzten, ipar-mendebaldeko kostako harpe batzuetan. Mendi Harritsuen ondoan, arratsalde lasai eta zohardi batean, plater hegalariak ikusi zituela jakinarazi zuen pilotu iparramerikar batek. Hungariak SESBren inbasioa jasan zuen, Truman doktrina aldarrikatu zen, eta gerra hotza hasi, bete-betean.

1947an zedarritu ziren, halaber, Nazio Batuen egoitza eraikitzeko lursailak ere, Manhattango bihotzean. Jadanik bazen Nazio Batuen Erakundea: behar bezala sinatua zen sorrera-agiria, eratua zen kontseilu iraunkorra eta, noizean behin, han-hemenka, batzar nagusia egiten zuten. Baina egoitza iraunkorra, lanerako zentroa, falta zitzaion, eta, egonkortasunik gabe, bere asmoak mamitzeko moduko arkitektura-adierazpiderik gabe, desegiteko arriskuaren eta zatiketaren kontrako oztoporik gabe, ekimen idealista hari atxikitako kontzeptu ahul osoa «amets gozo huts» bihur zitekeen. Horixe zen, izan ere, ordura arte, erakundea, Kantek *Betiereco bakea: iruzkin filosofikoak* (1975) saiakera berezian «nazioen elkartea» sortzeko deia egin zuenetik.

Kantiar izenburuko «betiereko bakea» txantxa bat da benetan, eta, gainera, makabrotzat jo liteke: holandar ostatu bateko banderako idazkunari dagokio, eta, banderan, legenda itxuraz zorionsuaren gainean, hilerri baten irudia ageri da –hor, zinez, hilobiak egiten du barre azkeneko. Hala ere, nahiz eta ezkor porrokatua zen, aipatu-tako bakeak (eta nazioen elkarteak berak) oinarri izan behar zituen egiturazko printzipio erabilgarriak ziriborratu zituen Kantek, baina «bakearen kostuaren» balioespen erabat errealista egiteari utzi gabe. Egia esan, bakea oso garestia da, filosofoak ongi dioen bezala; hain garestia, non hari eusteak berak beste pizgarri bat eskaintzen baitu (gehiago behar balira bezala), gerrari ekiteko. Ondorio gisa esan liteke diruaren –«bakearen kostua» finantzatzeko erabilitako diruaren– boterea oso arma fidagarria dela, indartsuagoa, oraindik, armadak eta aliantzak baino.

Bakearen kostu handia, Kanten arabera, bakea berezko egoera ez delako sortzen da. Izan ere, belizismoa da gizadiaren *status naturalis* edo berezko izaera, bereziki gizarte maila dominatzaileen artean. «Gerra da [gizadiaren] berezko egoera. Horek ez du esan nahi borrokan gabiltzanik beti, gatazkaren mehatxua etengabea dela baizik». Halatan, bada, gerra-mehatxu aldagaitz, unibertsal eta betierekoaren aurrean, Kantek nazioen elkartea sortzea eskatzen du: ez giza izaeraren eraldaketa ilustratua, ez bakea sustatuko duen mundu mailako Estatu utopikoa, ez eta interes eta onura partekatuak izango dituen asmo oneko aliantza nazioartekoa ere, baizik eta «aliantzaren suzedaneo negatiboa», gutxienez egoerarik larrienak leuntzen eta gerraren izugarrikeriak saihesten lagunduko duena. Beraz, Kanten «amets gozoak» oso gozotasun gutxi du, egiaz. Egilearen xedea ez da sariak jasotzea, ezta batasun hautsia osatzea ere, eta are gutxiago galdutako paradisua berreskuratzea. Aitzitik, amesgaiztoak saihestea du helburu, besterik gabe.

Amesgaiztoak saihestea... Nahi horrexegatik hasi ziren, era berean, Nazio Batuen egoitza eraikitzen 1947ko iraileko goiz hartan, New Yorkeko Turtley Bay auzoan. Arkitektura berri baten bitartez giza arima hobetzea, Le Corbusier-en «amets gozo» pertsonala, 1927koa da, ez 1947koa. Nazio Batuen eraikina ez da hainbeste arkitektura argituaren adibidea, «hondamendiaren arkitekturaren» isla baizik, historian zehar metatutako hondamendietan sakon errotutako zimendu kontzeptualen gainean eraikia. Egia esan, Noeren arka edo Babelgo dorrea bezala, Nazio Batuen egoitza ere planetako hondamendien zeharkako arkitektura-ikono bihur liteke, eta hondamendi horiek, beren garaian, ez ziren nahitaez iraganekoak. Nahiz eta egungo ikuspegitik 1947. urtea gerra ondorengo garaitzat hartzen den, zuzen hartu ere, garai hartan «ondorengo» hori «aurreko» bihur zitekeen erraz. Bai, amaituak ziren holokaustoaren eta bigarren mundu gerraren amesgaiztoak (nahiz eta alde guztien hondakinei oraindik kea zerien eta hondakinen artean jendea goseak zegoen). Beste amesgaizto baten erdian esnatzea omen da amesgaiztorik okerrena, ordea, eta, 1947an, are holokausto lazgarriagoa jasatear zegoen gizateria. Ez gara ari hirugarren (edo laugarren edo bosgarren) mundu gerraz, «garaien amaierako» gerraz baizik, apokalipsi nuklearrak eragindako elkar suntsitze atzeraezinaz. Urte gogoan-garri hartan izan ziren gertakari garrantzitsu ugariak gorabehera, beste gauza batek zuen garrantzia: ez orduan gertatzen ari zenak, edota dagoeneko gertatua zenak, baizik eta gerora gerta zitekeenak eta gertatu izan zitekeenak.

Txuspo Poyo-ren *U.N(inverse)* lanak Nazio Batuen egoitza hartzen du abiapuntuzat. Azterketa bizi, liriko eta sakon zirraragarria egiten digu. Egilearen ia lan guztiek bezalaxe, *U.N(inverse)*k ere historiari buruzko ikuspegi kontzeptualean du jatorria; kartsua da ikuspegia, eta biribila lanaren azken gauzatzea. Hala ere, erreferentzia kultural, historiko, soziopolitiko, zinematografiko eta artistiko ugarien azpian, eta egileak ikono kulturala eta haren ezaugarriak filmetan arakatzeko duen nahi nabaria baino harago, *U.N(inverse)* ekoizpenaren –eta parametro historikoetan oinarritutako Poyoren gainerako lanen– benetako ardatza ez da iragana, oraina baizik, geure oraina. Prisma batek inguruko argiaren kolore-bandak banatzen eta agerian uzten dituen bezalaxe, Poyoren piezan ere ikono kulturelek eta iraganeko ezaugarriek lente optikoak balira bezala jokatzen dute, eta, horrela, ederki bana daitezke eta, beraz, agerian utzi, inguratzen gaituen eta izaera berezi bat ematen digun kulturaren osagai ikusgaitzak. Gu kultura horren partaide gara, eta, egia esan, sortzen laguntzen dugu.

Artea egiteko era hori halako historia mota bat idaztearen parekoa da. Artista historialari bihurtzen da, eta, gainera, Hannah Arendtek, Kant-en politikari buruzko lan bakanak abiapuntu hartuta, besteak beste *Betiereco bakea*, sutsuki proposatu eta praktikatu zuen historialari mota bat: ez artxibozaina (gaur egun-go joera batzuetan ez bezala), ez kronista edo narratzailea, ezta lekukoa ere, kantiar adierako epailea baizik, epaitzeko gaitasuna jakinaren gain eta nahita darabilena... Ezbairik gabe, orainean egiten du hori, zeren orainari baitatxekio beti historia, behin eta berriz besterik dioskun arren. Arendtek nabarmendu zuenez, gustu estetikoei, kontzientzia moralari edo beste edozein alderdiri lotutako gaiak epaitzea unean uneko ekintza zehatza da beti, ez abstraktua, eta, iraganera zuzenduta badago ere, orainetik eta orainean dihardu. Walter Benjaminek, Arendten laguna eta honek baino lirikotasunerako joera handiagoa zuena, historiaren aingerua zekusan han goian, iraganeko hondamendiaren gainetik, etorkizunari so. Arendt –Benjamin ez bezala, bizirik atera zen mendeko zoritxarretatik, eta bere testigantza eta azterketek asko lagundu digute haiek ulertzen–, aldiz, gaurkotasunean dago errotuta, eta halako gertakariak epaitu egin behar direla dio. *Pentsamenduaren (Gogoaren bizia* obraren lehen liburukian) epilogoan, honako hau idatzi zuen alemaniar autoreak: «Adimenak iragana epaitzeko gaitasuna ematen digu, eta, horrela, historialariak, jakin-minak jota, iragana kontatzen eta, aldi berean, epaitzen digu. Beraz, geure giza duintasuna aldarrika dezakegu, Aro Modernoaren Historia deritzan sasijainkoari ken die-zaiokegu indarrez; historiaren garrantzia ahantzi gabe, jakina, baina epailerik gorena izateko eskubidea ukatzen diogula.»

U.N(inverse) lanak horrelako epaiak ematen dizkigu, hain zuzen. Alde batetik, Nazio Batuen egoitzaren azterketa historizista eta apur bat ikonoklasta da, tartean Eleanor Roosevelten ahots txinpartatsua entzuten dela, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala irakurtzen, eta Nazio Batuen eraikinean zintzilik dagoen Guernica-ren tapizaren irudi iheskor eta lausoak ikusten direla. Baina aldi berean, eta erreferentzia tekniko horien artetik, hain zuzen ere, *U.N(inverse)**k* estilistikoki antzekoa den ikono arkitektonikoa dakarkio gogora ezinbestean egungo ikusleari, hots, World Trade Center eraikinaren dorreak, eta haien suntsipen-ekintza ikonoklasta argia eta milaka lagunen heriotza, aldi oso bateko jendearen oroimenean grabatu dena.

Baina zoritxarrak bata bestearen atzetik etorri ohi dira eta *U.N(inverse)**k* trebetasunez jokatzen du ikuslearengan sortzen dituen oroitzapenekin (ezbairik gabe, trebetasun horretantxe datza, funtsean, lanaren arrakasta bai estetikoa eta bai morala). Horregatik, eta emaitza gisa, ezinezkoa zaio egungo behatzaileari –berriz ere, Poyoren lanak *orainari* erreparatzen dio, batik bat– Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluaren osoko bilkura hartan (2003ko otsaila) gertatu zena ez gogoratzea: Colin Powell jenerala, mundu osoaren aurrean, gune horretan bertan, *U.N(inverse)*-ren erdiguneak eratzen duen gune horretan, totelka, aurkezpen baldar eta *amateur* lotsagarria egiten, okerreko grafikoak eta ordenagailuz sortutako irudi barregarriak zerabiltzala. Mundu osoaren begiradapean zutik eta gaur egun oraindik bukaerarik ikusten ez zaien gertakizun segida bat abiarazteko zorian... Mundu osoaren aurrean, gezurretan... Mundu osoaren aurrean, gerrarako deia egiten.

Egun hura txit negargarria izan zen Nazio Batuentzat. Baina *U.N(inverse)**k*, hari erantzunez, iragan hurbilari nola hel dakiokeen erakusten du, hain zuzen ere auzian jartzeko eta horrela gure giza duintasuna aldarrikatzeko, Arendt-ek eskatu zuen eran. Horri dagokionez Poyoren lana eredugarri bezain presakoa da. Izan ere, litekeena da beste biderik ez egotea Nazio Batuek eta sortu zituen ametsak hondamendiaren arkitekturaren hondakinetan amai dezaten ekiditeko.